

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko abenduaren 17a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Baztan-Bidasoa • Eguneroko bizitza bermatzeko kideak lortzeko kanpaina abiatu du Xorroxin Irratiak

Edurne Elkano • «Patinajea uztekotan egon nintzen»

Euskaraz mintzatzeko



• CRISTINA BERTAIN

ordenagailua

Euskararen erabilera apurka-apurka ari da gora egiten, eta teknologia berriak ere gero eta baliabide gehiago eskaintzen ari dira. Hala, bada, Nafarroako Unibertsitate Publikoan ordenagailuak euskaraz mintzatu ahal izateko programa prestatu dute Telekomunikazio Ingeniaritzako bi ikaslek. Ezinduei komunikatzen laguntzeko NUPen prestatzen ari diren programa elebiduna izatea lortu dute Amaia Arrietak eta Saioa Uribeetxebarriak.

Lizarra • Kilkarrek antzerkiarekin taupaka

Lizarrako antzerki taldeak bere azken lana estreinatuko du gaur eta bihar

Kilkarrek antzerki taldeak *Historia bikoitza* lana aurkeztuko du gaur eta bihar, gaueko 22:00etan, Los Llanos aretoan. Amnesty International taldearen ekimenez prestatu dute azken antzezlan.



Kilkarrek taldeak bere hamalagarren lana estreinatuko du gaur, 'Historia bikoitza'
• KRISTINA BERASAIN

HILAREN 21EAN GIZA Eskubideen Nazioarteko Eguna da, eta Lizarrako Kilkarrek antzerki taldeak ere bere egin du aldarrikapen hori. Lizarrako Amnesty International taldeak giza eskubideen inguruko antzerki bat egitea proposatu zion taldeari orain dela urtebete. Kilkarrek, proiektua interesgarria izan zitekeelakoan, baiezkota eman zuen. Geroztik lanean dihardute. Hasieran testu baten bila, nork idatzi, non bilatu. Bat-batean Antonio Buero Vallejo idazlearen *La doble historia del Doctor Valmy* antzezlan heldu zen haien eskuetara, eta, aproposa zela eta, aurrera egin zuten. Moldaketa txiki batzuk han eta hemen, eta lanera. Hamar hilabete eman dute lana presta-

tzen, eta emaitza gaurko 22:00etan ikusi ahal izanen da Los Llanos aretoan. Bihar ere emanen dute, ordu berean.

Surelia alegiazko herrialdean kokatzen da antzezlan. Bertako polizia bat torturazailer bihurtzen da, eta instant horretatik aitzina bi bizimodu ditu; izan ere, bere emaztearen aurrean bertzelako irudia eman behar du. Bere kontzientzia ez dago lasai eta, ondorioz, bere buruarekin borrokatzen hasten da. Poliziak zuzena izan nahi du, baina bere ekimena bertzela-

koa da. «Azken finean, konnotazio politikoak ditu antzezlanak, baina giza harremanen ikuspuntua agerian dago beti», esan digu Pedro Etxabarri antzerki taldeko zuzendariak.

Orotara hamar aktorek parte hartzen dute ikuskizunean. Antzerki munduaren inguruan dabilen jendeaz gain, bertzelako arteetan diharduten hainbat pertsonak ere lagundu dute. Hala, Juan Maria Sukilbide eta Marijose Rekalde margolariak arduratu dira eszenatokiaren apainketaz. Halaber, Amaia

Romerok idatzi du musika, eta Aitor Jordana eta Arantxa Tronkoso musikariek ikuskizunean zuzenean parte hartzen dute.

Lan hau Kilkarrek antzerki taldearen hamalagarrena da. Taldea 1983. urtean sortu zen, eta hamalau ikuskizun prestatu ditu. Orain arte genero komikoa landu badute ere, orain drama batean ikusi ahal izanen ditugu. Zuzendariak dionez, haientzat «erronka bat» izan da.

→ Kristina Berasain

Leitza
•
Mendibil,
mendi talde
berria

GAUR ARRATSALDEKO ZOR-tzietatik aurrera, Leitzako zinematokian aurkeztuko dute Mendibil mendi talde berria. Mendibil izena logotipo lehiaketan parte hartu duten pertsonen egindako proposamenetatik aukeratua izan da. Logotipo lehiaketa nork irabazi duen esango dute, eta, horren ostean, mendi taldearen egitaraua aurkeztu.

David Anaut taldeko ki-deak esan duenez, beren aurreneko bidaien artean, Leitza aldean mendi ibilaldi bat egitea da. Aurrera elkartearen barruko talde gisa eratua izan, baina, diotenez, bere funtzionamendua autonomoa izanen da. Mendi taldearen helburua da mendiaren eta naturaren inguruko jarduerak nahiz ekintzak antolatzea eta mendizale-tasuna bultzatzea. Bazkide izateko, 1.000 pezetako kuota ordainduko dute urtean 18 urtetik gorakoek, 18 urtetik berakoek, 500 pezeta, eta Aurrerako bazkideek, berriz, 200 pezeta.

Datorren hilean egingen dute talde honen lehen batzarra, eta bertatik, mendi taldearen martxaz arduratuko den batzordea sortzea espero dute.

Aurkezpen ofiziala izanen da gaurkoa. Ondoren, UEMAko kultur elejiraren barrenean, Ana Larretxeak *Gasherbrum II Bortzirtetako Espedizioa* emanaldia eskainiko du.

→ Eli Belauntzaran

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Munduko klaseko-afari guziek hitzordua eginga dute gaurdirako, *Superbateko* bazkide direnetik hasita Opuseko agure errepikatzaileen azken promoziora ailegatu arto. Denek bat egingen dute betiko karrika zahar estuetan, ostatueto eskailera behera amaigabeetan. Ke-zurrumbilo, deiadar ozen lizunen artean, hitz topiko iragarriak gurutzatuko dizkiote elkarri. Nahigabe ere, sozializazio prozesua areagotu egiten baitzaigu urte amaierako data hunkigarri hauetan. Klase-artalde jendetsuek beteko dute gaua, garagardotutako nerabe maitaleen ikuskizunek eta gela bakoitzeko kanta baterakoi adierazgarriek. Horien aldamenen berriz, gu. Hel-

Poza

dutasunaren ustezko bidean klaserik gabe gelditu garenok, ostutuko txoko bakartia lapurtu digutelako beti kexu, etengabeko jende jarioak edota txiki-park bilakatutako tabernetan sartu ezinik ibiltzeak aski nazkatuta. Gehiegizko pozak dakarren ondorioa.

Data bereziei itsasiriko pozak (edo ajeak) eratuko du gaurko irudien testuingurua. Poz birtual horren itzala-dakusagu, besterik gabe hala-beharrez eginiko brindis bakoitzean, hipermerkatu handietan entzungai diren gabon-kanta eskuzabal tontoak belarrira murmurikatuko balizkigute bezala. Izan ere, hilabeterik zaharrenean zoriona eskatu ohi diogu urte berriari.

Zoriona, nahiz desio abstraktu horri definizio zehatzik erantsi ez.

Eguberrietako ateak irekiko ditu gaurko afariak, pinuaren etorrerak etxeetan iragartzen duenaren antzera. Bestondoaren ostean, Liliputoko izotz pista horretan eskutik helduta patinatuta eta argi-txirikorda artean pasiatzeko egunak iritsiko zaizkigu, Gaiarre zein *Golemeko* ilara luzetan zain jarduteko ordua. *Toys'r'useko* jabea izatearekin egiten dut amets horrelakoetan. Poza. Iragarriaren mezuari jarraiki, mobila eskuratuta (eta ordainduta) askatasuna erdietsi dutenen poz hori. Eta gaur hantxe gu, iragarkian partaide, hiruhilabete osoan sekula hitz egin ez dugun klasekide lirain horrekin dantzatzan.

Baztan-Bidasoa • Xorroxin, kide bila

Laguntza kanpaina paratu du Baztan-Bidasoako irratia

«Eguneroko bizitza bermatzeko» asmoarekin antolatu dute Xorroxin Irratiko kideek laguntza kanpaina. Irratiko tresneria, hedagailu berriak eta Lesakako estudio berria prestatzeko bildu nahi dute dirua.



«Eguneroko bizitza bermatzeko» xedea du Xorroxin irratia kanpaina berriak. • GARI GARAIALDE

URTE BERRIAREKIN ESTREINATU zituen Xorroxin Irratiak estudio berriak Elizondon. Lesakako lizentzia ere eskuratu zuen, eta, horrenbertez, estudio bat paratu beharko dute Elizondoko

egoitzan. Horri guztiari eta eguneroko zereginen sortzen dituzten gastuei aurre egin ahal izateko, diru eske dabil-tza Xorroxin Irratiko kideak. Legate eta Larungo hedagai-luak eta Elizondoko estudio-

ko tresneria mantendu ahal izateko, emisora, irratiloturak, antenak, soinu-mahaiak behar ditu Baztan-Bidasoako irratia. Hemezortzi urte ditujada irratihonek, eta etorkizuna bermatu eta oraindik

dituen zenbait huts gainditu nahi ditu. Urdazubi-Zugarra-murdin zenbait arazorekin aditzen da irratia, eta horiek konpontzeko edagailu berria paratu nahi dute, hori baita eskualde osoan ilungune nagusia. Bailara hain menditsuazateak arazo franko sortzen ditu irratia seinala etxe guztietara hedatzeko tenorean.

Laguntza bonuak eta bazkide txartela

Laguntza emateko bi modu paratu ditu entzuleen esku Xorroxin Irratiak. Batetik, herri guztietako ostatu eta dendetan laguntza bonuak paratu dituzte, 1.000 eta 5.000 pezetan eros daitezke. Bonuen bidezko laguntza aportazio bakarrekoa da.

Bertze bidea kide egitea da: laguntza arrunta, urtean 6.000 pezetakoa (hilean 500 pezeta); langabetu, ikasle eta jubilatuek 3.000 pezeta eman di-tzakete urteko (250 pezeta hilean).

Laguntza hori etxeetan banatu dituzten paperen bidez betetzen ahal da, edo ostatu eta dendetan zabaldu dituzten orrien bidez. Bertzelakoan, Xorroxin Irratiarekin harremanetan paratzea ere badago.

→ Jon Abril

BIHAR, DONEZTEBEKO BORDATXO dantzalekuan, 16:30etatik aurrera, Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako finala egingen dute. Hamaika dira finalera heldu diren kantak: Yoartzun taldearen *Hilzori II*, Suhartaldearen *Azken gutuna*, Kokoak taldearen *Benta*, Lañoepan taldearen *Bizitzarekin dantzan*, Yolanda Garin eta David Arbizu bikotearen

Euskal Kantu Txapelketako finala, bihar

Aitarik ez dut, Leire Marin eta Idoia Alonso bikotearen *Maitemindurik*, Jaione Olazabal eta Ion Pellejero bikotearen *Nun dire*, eta Joseba Lasa eta

Estibaliz Agirre eta Jaione Olazabal eta Ion Pellejero bikoteen kanta bana. Modalitate bakoitzean (talde, bikote, bakarlar) irabazle bat egonen

da eta, horretaz landara, epaimahaiak hiru kanta aukeratu dituzte ekainean Gernikan egingen den Euskal Herriko Euskal Kantu Txapelketan Nafarroa ordezkatzeko. Biharko finala Xalotelebis-tak eta ETBk grabatuko dute, eta hamaika kantuekin disko konpaktua osatuko dute.

→ Asier Azpilikueta



herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Bortzirietako alkateen bilera

Lesaka-Irun errepideaz eta Etxalarko industrialdeaz mintzatzeko Bortzirietako alkateek berriki egindako bilera-berri ematen du **Ttipi-ttapa** aldizkari-ko azken zenbakiak, Aitor Arozena kazetari lesakarrak sinatutako artikulua-ren bidez: «Lesakan azaroaren 17an egindako bileran Bortzirietako bortz alkateak, Berako Josu Goia (EH), Lesakako Jose Luis Etxegarai (EAJ-EA), Etxalarko Miguel Mari Irigoien (Herri Taldea), Arantzako Jose Ramon Amoros (EH) eta Igantziko Eduardo Migelena (EAJ-EA) eta udal zinegotzi batzuk aritu ziren solasean. Lehenik,

udalez gaineko erakundeetaz aritu ziren, Garalur eta Udalbiltzako, Euskal Herriko Hautetsien Biltzarraz, hain zuzen».

«N-121 errepideari dagokionez, aferra aspaldikoa izan arren, Iruñetik oraindik ez dute argitu zer egingen den bidezati horretan. Jakina denez, Endarlatsatik Behobia arteko bidea Gipuzkoako lurtean egon arren, Nafarroarena da XIX. mendeaz geroztik. Duela bi urte, 1997ko abenduaren 27an, Jose Ignacio Palacios eta Jose Julian Irizar, Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioko Herrilan, Garraio eta

Komunikabideetako kontseilariak mahai berean esertzea lortu zuten Bortzirietako alkateek. Orduan, Gipuzkoako ordezkariak «jabetza eskuratzea ez da nahitanahiezko baldintza eta segurnago akordio batera ailegatuko garel» adierazi zuen. Bi urteren buruan, ez dirudi oraindik akordio dagoenik».

«Azkenik, Etxalarko Arrakoitx ingurua egin nahi den industrialdeaz ere aritu ziren udal ordezkariak. Alkalagako industrialdeak izan duen arrakasta ikusita aitzinera egin nahi du Etxalarko Udalak Arrakoitxko industrialdearekin».



ur dai
are n
mintzoa

Xabier Larraburu

Jauregia

Bazen behin, herrialde urrutibatean, mendi baten puntan, Jauregi zahar eta dotore bat. Gehienetan hutsik egoten zen, ordea, eta armiarren sareak eta xagutxoak noizbehinkako zalapartatxoak ziren etxearen biztanle bakarrak. Baina, al Baina, aldizka, tarteka-marteka, kotxe beltzen ilada luzeak hurbiltzen ziren mendi muino hartara eta Jauregiko ateak zabaltzen ziren orduan eta etxeak dotorezia berezi bat, urrezko xarma bat, hartzen zuen; Erregearen egoitza bihurtzen baitzen gau bakar baterako. Eta horrela Erregearen ametsak eta hasperenak, gau bakar batez bada ere, Jauregiaren gela eta pasabideetan zehar sakabanatzen ziren eta etxearen dotorezia areago dotoretu egiten zen eta armiarren sareak desagertzen ziren eta xagutxoak ezkutatut. Elgorriagak ere, Jauregiaren erabilerraz ari zela, beste une batzuetan erabili erabiltzen zela esan zigun. Hala nola bere familia, udako arratsalde sargorietan, hango piszinara joaten zenean, plisti-plasta, plisti-plaut; ba al dago familia alai bat, piszina alai batean baino irudi pozgarriagorik? Elgorriagak dio Jauregiaren erabilpena hortara mugatzen zela eta horrela ipuinari amaiera ematen dio, eta kontuak kontu, horixe dela Erreinuaren egoerari buruz eman dezakeen informe osoa: Erregeak amets, unhean jolasak, bikini pare bat, piszinaren uretan eguzkiaren dir-dir alaia, kitto. Beste batzuek, aldiz, Erreinuaren ispiluan den Jauregi honetan agertzen diren isla batzuk aipatzeko daudela diote. Esaten dute ispiluan, gau amaiezinetan, egun ezin luzeagoetan sortutako beste hasperen beltz, beste amets ikaragarriak agertzen direla. Mapa osatu gabe dagoela. Oihu bat entzun dela hor azpialdetik. Gogorra bada ere utz dezagun Erregearen logela eta jaits ditzagun eskailerak, goazen soto ilunera, errealtatearen ispiluan osoa ezagut dezagun. Akaso, ez dakit, Errege Jauregiaren logelaren azpian gizasemeak torturatzen dituztela jakingo dugu. Posiblea da, hau da bizi dugun Jauregia.

Makinek ere euskaraz

Ordenagailuak euskaraz mintzo ahal izateko programa prestatu dute Telekomunikazio Ingeniaritzako bi ikaslek

Ordenagailuek euskaraz hitz egiten ahal dute dagoeneko, Amaia Arrieta eta Saioa Uribeetxebarriak Telekomunikazio Ingeniaritzako ikasketa bukaerarako egin proiektuari esker. Ezinduei komunikatzen laguntzeko programaren zatitxo bat da proiektua, baina beste hainbat aplikazio ere izaten ahal ditu, egileek esan dutenez.

ARRATSALDE ON HEMEN BILDUTAKO DENOI. Testu ahots bihurtzaile euskalduna naiz, unibertsitate honetan sortua; gustatu al zaizue nire lehenengo aurkezpena? Euskaldun berria izateko ez dut batere gaizki egin, ez da hala? Norbait animatuz gero, euskaraz ikasten jarraitzea gustatuko litzaidake. Besterik gabe, ikusi arte; agur denoi.

Robot batena ematen zuen ahotsaz, ordenagailu batek egin zuen, horrelaxe, Amaia Arrieta eta Saioa Uribeetxebarriaren karre-rama amaierako proiektuaren aurkezpena. Bi gazte iruindar horiek Telekomunikazio Ingeniaritza ikasi eta urtebete eman dute *Testu ahots bihurtzailea* euskaraz prestatzen.

Ahots sintetizadorea egin dute Saioak eta Amaiak, eta ordenagailua euskaraz mintzatzeari lotu dute. Telekomunikazioetako ikasketak amaitu eta proiektua egin behar izan zutenean, euskarazko testu ahots bihurtzaile egiteko aukera eman zieten irakasle euskaldun bik. Gaztelaniazkoa bazuten, hori ere ikasleek egina, eta euskarazkoa ere izatea interesgarria iruditu zitzaizen. Orduan hasi ziren lanean.

Zenbait ikasleren artean ezinduentzako programa egiteko proiektu handi bat egin behar zuten: *Sivha*, *síntesis visual del habla* (Hizketaren ikuste-sintesia); eta Amaiak eta Saioak proiektua elebiduna izatea lortu dute. *Sivha* honen azkeneko helburua da ordenagailuaren erabiltzaileak pantaila begiekin kontrolatu ahal izatea. Begiak ordenagailuaren sagua balira bezala erabiltzea, esaldiak eta testuak prestatu eta hitz egitea lortzea. Esklerosi anizkoitza dutenentzako proiektua da, baina Amaiak eta Saioak esan zuten, beste erabilpen anitz ematen ahal zaio.

Esklerosia dutenek oso murriztua dute mugimendua; gaixotasunaren azken unetan begiak bakarrik mugitzen ahal dituzte gehienetan, eta *Sivha* programaz ordenagailuak eurek nahi dutena esatea lortzen ahal dute; horrela, inguruarekin hobeti erlazionatu ahal izanen dira. Iruñeko bi gazteek egindako lanari esker, euskaraz ere harremanetan jarri ahal izanen dira gaixoak.

Amaia Arrieta eta Saioa Uribeetxebarria, Telekomunikazio Ingeniaritzako ikasleak

KRISTINA BERTAIN

Hizkuntzalaritza lana

Ordenagailuari euskaraz hitz egiten irakatsi behar zioten lehenabizi, eta ederki lortu dute helburua; horretarako, ingeniariak lanaz gain, hizkuntzalaritza lana ere egin behar izan dute. Gaztelaniazkoa izan dute eredu, bertatik euskarazkoa egokitu dute, baina lana itzela izan da, esan dutenez, «euskara eta gaztelania izugarri ezberdinak baitira».

Hasierako lan hau intuizioz egin dutela diote, inoren lagutzarik gabe, eta haiek hartu dituzte hizkuntzari zegozkien erabakiak. Datu basea osatzea zen lehenengo lana, eta, horretarako, euskaraz gehien erabiltzen diren hitzak sartu behar izan zituzten ordenagailuan; haien ustez euskaraz gehien erabiltzen direnak. Hitzak, atzizkiak, deklinabide taula guztiak, aditzak eta aditz taulak, laburdurak, zenbakien izenak, data jartzeko modua... Euskaraz mintzatzeko beharrezko elementu guztiak eman zizkieten ordenagailuari.

Dena dela, hizkuntza guztien moduan, idatzizko eta ahozko euskara arras ezberdinak dira. Horrexegatik, irakurritakoa behar bezala ahoskatzeko moldaketa egin zuten bigarrenik. Proiektuak aurrera behar bezala egin zezan, detaile guztiak kontuan hartu behar izan zituzten. Fonema, hitz eta ikur guztiek ahozko baliokide egokia izan behar zuten; testua ahots bilakatu behar zen, euskaraz.

Eta orduan grabaketak egiten hasi ziren, Bartzelonan. Gaztelaniazko bertsioa gizon batek grabatu zuen, eta Amaia eta Saioari egokia iruditu zitzaizen euskarazko bertsioa emakume batek egitea; horrenbestez, ema-



kume ahotsa du euskaraz mintzo den ordenagailuak.

Amaiak eta Saioak ordenagailuak ahalik eta era adierazkorrenean mintzatzeari nahi zuten; erabiltzailearen hitz egiteko modu bakarra izan da, azken batean. Eta horretarako ahalik eta ahots eta hitz egiteko modu eta erregistro gehien sartzen saiatu dira.


Letrak, hitzak, deklinabide marka, aditz forma, esaldiak aukeratuta, eta testua osatuta, esateko modua ere aukeratzen ahal du erabiltzaileak. Pantailan azaltzen diren modu guztietarik bat hartu eta modu horretan mintzatzeko da makina, sentimenduak adierazteko ere gai baita: haserre, triste, alai, goibel... Gainera, hitz egiteko bolumena eta abiadura ere aukeratzen ahal da, baita ahotsaren tonua ere. Eta hori guztia aukeraturik, beharrezko botoia sakatu (saguarekin orain, baina begiak mugituz *Sivha* programa prestatutakoan), eta ordenagailuak aukera-

turiko testua aukeraturiko moduan esanen du, euskaraz.

Aurrera egiteko deia

Egindako lanaren ondoren pozik daude gazteak; euren esfortzuak emaitza ona eman du; urte osoa eman dute eta lan handia izan da. Baina proiektuarekin zer gertatuko ote den, horrek ere kezka sortu die. Hainbat gauza hobetzen ahal dira oraindik euskarazko testu ahots bihurtzaile horretan, eta norbaitek lan hori egiteko ardura hartzea nahiko luke. Begiak pantailarekin erlazioatzea da programaren azkenengo helburua, baina sintetizadorea ere hobetzen ahal da. Gaztelaniazkoa hobetzen ari dira dagoeneko, eta Amaiak eta Saioak euskarazko bertsioarekin aurrera egingen duen norbaiten bila ari dira, lan hori guztia apal batean gera ez dadin.

→ Miren Iriarte



Erabilpen anitz

SAIOA URIBEETXEARRIAK ETA AMAIA ARRIETAK proiektuarekin hasi zirenean helburu bakar bat zuten buruan: *Sivha* elebiduna izatea; programa hori erabiliko zutenek euskaraz egiteko aukera ere izatea.

Baina orain, proiektua bukatutik dutela eta osorik ikusten ahal dutela, erabilpen gehiago erantsi dizkiote. *Testu ahots bihurtzailea* euskaraz hitz egitea izaten ahal da. Bi ikasleek esan dutenez, horrelakoak badira erdaraz, eta Interneten erabiltzen dira; «oso egokia da itsuentzat», esan dute.

Gainera, posta elektronikoko moduan ere erabiltzen ahal dute itsuek. Erabiltzaileak mezua jaso eta, Saioak eta Amaiak egindako sintetizadorearekin, testua ozen irakur dezake ordenagailuak.

Eta oraingoz proiektuari aurkitu dioten azkenengo erabilera euskararen irakaskuntzarako baliagarria da. Idatzitakoa behar

bezala irakurri eta ahoskatzeko, esaldiko hitz bakoitza zer den jakin behar du ordenagailuak. «Normalean gu ez gara konturatzen, baina hitz egiterakoan ezberdin ahoskatzen ohi ditugu subjektua, objektua, aditza...». Horregatik, *Testu ahots bihurtzailea* euskaraz proiektuak esaldi guztien analisi sintaktikoa egiten du ozen esan aurretik.

Hala, testua irakurtzeko nahitaezkoa den pauso horrek beste baliabide bat eman dio proiektuari. Amaiak eta Saioak esan dutenez, euren sintetizadorea euskarazko irakaskuntzan ere baliagarri izaten ahal da.

Baina proiektua irakaslearen apalean geratzekotan, ez du inongo baliabiderik izanen, eta, horregatik, norbaitek proiektua hartu eta jarraitzeko gogo handiz daude Amaia eta Saioa. *Sivha* proiektuak lortuko duen programa osoa elebiduna izatea nahi dute.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Jose Zalba Labarga historialariaz

Ez zaigu, ausaz, horren isilpean igaro Zalba historialariaren izena gurean, areago euskaltzaleak garenon artean; alabaina, eta izena ezaguna izatearekin ber, bere lanen berri kamutsa da oraino nagusi dena, eta seguruenik ere, gutxi dira Zalbaren lanak bere-berean irakurri dutenak, tartean izan direnen hainbatek jaso eragina nabarmenagoa datekeen bitartean.



Jose Zalba Labarga non eta Lizarran jaio zen, orduko abertzale aunitzen eta haundien kaban, noliz eta 1883.eko abenduaren 20an, astelehen honetan jaio zenetik 116 urte betetzen direlarik. Apezgai sarturik, Iruñeko seminarioan ibili zen teologia ikasle; alabaina, apezteko unea iritsi zitzaizola muturra okertu eta plazara jalgi zen, zer gerta ere — ber gauza egin zuen Zalbaren izenikide eta garaikide geneukan beste jeltzale eta idazle ezagun batek, Jose Agerrek hots —: apezgaitegian igaro zuenaren adierazgarri nabarmenena betiere eta guztietan erabili janzkera beltza izan zen, Iruñea aldean Zalba famatu zuen gauza, besteren artean. Historialari aparta izanik, Nafarroako Artxibategi Orokorrean egin zuen lan 1947.eko apirilaren 29an zendu arte, nahiz, hasiera batean, etxean bertan eskola partikularrak eman behar izan zituen sosak altxatu ahal izateko. Nahikoa gazterik sartu zitzaigun Madrilgo Historiaren Erret Akademian, eta huraxe zubitx aisa izan zitzaion Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordean 1920.eko ekainaren 25ean sartzeko. Honetan kuku-rruku gorako beste kultur gizon nafarrekin harremanetan sartzeko aukera ongi-ko profitatzeaz gainera, eta tartean Yanguas-Miranda bera bazegoen, pisuzko ardurak ere bete zituen, besteak beste, 1925.ean kudeatu zuen idazkaritza nagusia. Halarik ere, eta Batzordean goiko karguak nork betetzen zituen gorabehera, azpimarratzekoa bada Campionek zein Euskara Elkarteko hainbat partaidetako Monumentuen Batzordean izan zuten garrantzia, mende bukaerako euskaltzaleek Nafarroako bizitza kulturean izan zuten indarra garbiki erakusten diguna; Zalbak, bada, euskaro-ek irekiriko bidetik jarraitu zuen zuzen-zuzenean.

Gazte zela, *Diario de Navarra*-n hasi zen idazten, antzerki eta musika kritikak hain zuzen ere; alabaina, kazetaritza munduarekin izan zuen lotura ez zen horren maratza izan. EAJn afiliaturik, Iruñeko San Jose plazatxoan ireki zen lehenbiziko Euzko Etxean atera zen *Napartarra* astekariaren lehenbiziko zuzendari taldekidea genuen. Hantxe, baita geroagoko *La Voz de Navarra* eta *Amalur* kazetetan idatzi zuen, guztiarekin ere, bere idazki gehienak aldizkari espezializatuetan ageri ziren, kultuago zein iraunkorago, betiere helmen urriagorekin baina. Batzordearen argitalpenean, hau da, *Boletín de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra* aldizkarian, frai Diego Lizarrakoaren ikerketa sendo eta sakona plazaratu zigan, 1922.ean aparteko liburu gisa ere ageri zena, *Fray Diego de Estella: estudio histórico* —Iruñea, N. Aranbururen alargunarenean—, eta Batzordearen *Boletín* beraren jarraipentzat har dezakegun *Príncipe de Viana* aldizkarian ere hainbat lan eman zituen argitara. Nolanahi ere, eta Manuel Iribarrenek bere *Autores navarros de ayer y hoy* liburu klasikoan jasotzen zuenari jarraikiz, «gozaba fama de sabio entre sus coetáneos, y sin duda lo era, pero la obra que nos ha dejado es muy pobre». Gora-ago aipatutakoez gainera, bilduma

bio-bibliografikoetan zein entziklopedia desberdinetan Zalbaz ditugun sarreretan lan bakarra aipatu ohi da, *Desconocimiento de la nacionalidad étnica en Euzkadi: sus consecuencias* —Iruñea, Serafin Argaz, 1914—, Iruñeko Euzko Etxean 1913.eko abenduaren 20an oguzi hitzaldia dena: «*Circunscrito a los breves límites de una conferencia no ha sido mi ánimo, como no podía serlo, hacer una detallada y prolija narración de las contiendas de que a través de la historia de Euzkadi se suscitaron entre hermanos, por varias causas, entre las cuales de-*

ben figurar sin duda en lugar preeminente el desconocimiento de la unidad de origen y de lengua, así como la de costumbres y usos entre los vascos. Así es que sólo se tocan las luchas más salientes indicando en notas lo que he creído oportuno para la mayor inteligencia y ampliación de lo tratado en esta breve enumeración. Honekin batera, Iribarrenek ere 1908.eko sanferminetarako argitara eman zen *Iruña* izenburuko foiletoan Sarasateren omenez Zalbak atera zuen olerki erromantikoaren berri eman zigun.

Dena dela, eta esanak esan, aski garbi da zabalagoa dela Zalbak utzi zigun lanen kopurua, baita iduri dezakeen baino aberatsagoa ere. Alde batetik 36.eko gerrateak harlauza astuna jazo zen Nafarroako kultur gizon aber-tzaleendako, nahiz Zalbaren kasuan, horrek ez zuen osoro isilarazi. Horren lekuko, eta Manuel Iribarrenek eskasa zeukan arren, Nafarroako Artxiboari Zalbak eskaini zion bere artxibo pertsonala genuke, gaurkoan ere, sailkatu eta ordenatu gabe dirauena. Bestalde ere, badira oraino hainbat eta hainbat artikulua Zalbak sinaturik, Bilbaoren Bibliografian ez daudelako edo, aipatuegiak ez direnak. Adibide eder bat Agoteak *Naparroan* idazkia dugu, Euskaltzaindiak 1923.ean antolatu Bigarren Euskalegunetako Itzaldietan Aldabako Gregorio kaputxinoak irakurria eta 1926.era arte argitara atera ez zena. Donezteben egin ziren hitzaldi horiek berebiziko interesa dute nafarrondako, bada sinaduren artean nafarrenak baitzeuden: Julia Fernandez Zabaleta, Kruz Goienetxe, Larreko, Intza... Zalbaren lanak gai historikoa aurkeztzen digun neurrian ez zaiguke harrigarriegia; alabaina, euskaraz egotea aski interesgarria jazo-tzen zaigu. Aspaldia zen euskarazko eskolak Iruñean ematen hasiak zirela, bai apezgaitegian eta bai Euzko Etxean —Intxaurrondo, Lertxundi, Irujo...—, eta guztiz gauza jakina da izan, fruituak uzatzen hasiak zirela ere, Zalbaren lanak argikiro erakusten duenez.



etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo



Alka eta akerra

HIRULAUGARREN AL- dia badut tartar berarekin natorrela, eta milagarrena banu ere, lepoa parako nuke, ardit baten kaso-rik egin ezetz inork. Dena dela, bi hitzon arteko sekretuak, filologiaz barrenado, euskal zera ororen morboa ederki jasotzen ez ote duen nago.

Zenbat aldiz etxekoen eta ingurukoen ahotik: «*hau demonio alka*», neska edo mutiko xixtor luxanga bategatik. Aitari aditu ere bai: «*alka morddo batekin itten ginien askotan eskoba, ganbarako solairua o beste eozin gauza garbitzeko*». Alka belarrik luzeskonak bildu apropos, eta baiekin lizar zatukak lotzen ere ikusia nago jendea auzoan. Eta ez naiz etnologo moduan ari; atzo bertan esaten baitzidan Laxarok, neure bordondoko belasoaz: «*alkik zakarrana ez beste guzia garbittu ditek*» inguruko azindek, alegia. Beraz, beste edozein hitz bezain ezaguna dut nik alka, Goizuetako larrejen-de orok bezalaxe.

Baina, Goizuetan agortzen ote dira belar doakabe honen zainak? Ez zait halaxe iduritzen. Daturik aski eskura ez izan arren, lehenago esanen bainuke euskara asoan erabilia izan dela. Honela dakar R.M. Azkuek bere hiztegian: «*ALKA: Avena silvestre, folle avoine. Es una hierba llamada también LARRE-OLO, c'est une plante appelle autrement LARRE-OLO*».

Euskarak eman duen botanikorik partikularrenak, Lakoizketako eroak, Don Jose Maria xalo hark, alegia, hone-la jaso zuen: «*Dactylis Hispanica, Roth.: fran. dactyle; vas. alke-belarra*». Harixe jaso zion Azkuek, eta honi UZEIkoek, beren landare izendegian: «*Dactylis glomerata L.: e. alke-belar, g. dactilo, f. dactyle aggloméré, i. cock's foot*».

Hala eta guzi, OEhk ez dakar ez alka ez alke hitzik; alga hitzean egiten duen aipamen iratzeko haxe baizik:

«*albera. En relación con alka, alge, zalka, zalga, etc.*» Baina gero, *albera* horrenik ez da ageri inon. Harritzekoa. Zinez zorigaitzekoa dirudi gure alka galkor honek. Zenbat hitz xixtrin ez ote dut ikusi OEhn, alka honek baino askoz ere usuario exkaxagokoa!

Toponimoen bilketa lanak direla eta, oraintxe hasi da pizten hitz honen arima galdia. Ikus batipat Baztan, Bortziri, Malerreka, Basaburu eta inguruetan: *Alkadi, Alkaiaga, Alkain, Alkainzuriain, Alkaso, Alkaxuri, Alkondo, Alkerdi, Alkelarre*... Esan gabe doa, noski, alka- dela markarik gabeko hitza, nahiz eta hizkera dela medio zenbait lekutan alke bihurtu.

Behiala Apat Etxebarneri leitu niola uste dut, Zugarra-murdiko Alkelarre toponimoa nola bihurtu zen Akelarre inkisizio garaian. Eta geroztik, sorgin kontu honekiko morboa dela medio, nola hedatu dugun, morboz hedatu ere, euskaraz batere usarik ez zuen hitza. Halere OEhak jatik ez dio honetaz; borroera imitatzea izaten baitu biktima gaixok kezka bakar.

Eta jakina, gure toponimo zahar askoren erroan, AKER hitza ipiniko dizute gure filologoek ere, ALKE edo beste sustairik bilatzen saiatu ere egin gabe. Baina, hartu atzenaldira toponimian jaso diren AKELARRE guziak, aztertu in situ testigurik zaharrenekin, bai ahoz bai idatziz, eta seguru naiz, sekulan Akelarre izan ez den Alkelarre asko atera baitetz. Alferrik, orde, sena baino morboa historigileago izaten baita beti.

Euskararen historiak ere, ez ditu hitz morbosu batzuk baizik mundialdu. Hala nola: «*Aquelarre: es una de las pocas palabras de raíz eúska-ra, de 'aquer' macho cabrío, y 'larre' prado*». «*Reunión nocturna de brujas*». Azken ohar etimologikoa: sena = osasuna; morboa = gaitza. Eta ironiaren zipitzik ez du honek.

Ziria

• Motxorrosolo •

okalariak

Antzerkiak irudikatzen duena fikzioa omen da. Alta, jokari hezur-haragizkoak dira. Zinemarako sosik ez. Antzerkiarena geratzen zaigu. Garaiak asko du ikasteko Behereak egin ibilbidetik. Testuingurua nahi bezain hurbila izan daiteke, eta baldintzak puskaz hobeak.

Edurne Elkano

Patinatzailea

«Patinajea uztekotan egon nintzen»

Barañaingo Udalak 1999. urteko kirolaririk onena izendatu du Edurne Elkano patinatzailea, eta hilaren 26an emanen dio saria. Irailean eta urrian Txilen egindako Munduko Txapelketan bi domina —urrezko bat eta zilarrezkoa bestea— lortu zituen Elkanok. Datorren urtean, San Antonio Nafarroako taldean eta Italiako Pron ibiliko da.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE Publikoko eskolak amaitu ondoren hitz egin zuen Edurne Elkanok Nafarkaria-rekin; bere herriko Udalak emanen dion sariaz eta aurtengo denboraldiari buruz jardun genuen. Patinajea uztekotan egon zen, baina Munduko Txapelketan lortutako dominek aurrera segitzeko indarra eman diote.

■ Pozik zure herriarrek emandako sariarekin?

Bai, oso pozik. Gauza polita da etxekoan esker ona jasotzea egindako lanagatik.

■ Iaz beste patinatzaile batek, Eva Lizarragak, lortu zuen sari bera. Barañaingo Udalak patinatzaileak oso maite dituela esan nahi du horrek, ongi zaintzen zaituztetela?

Bai, hala da. Diru-laguntzak, batez ere, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Aurrezki Kutxak ematen dizkigu, baina herriko Lagunak taldea Barañaingo Udalak laguntzen du. Pistak ere, oso onak dira Barañaingoak, eta horri esker, besteak beste, iazko Munduko Txapelketa hemen egin zen. Eta antolakuntzari dagokionez, onenarikoa izan zela uste dut nik. Hainbat txapelketatan egon gara eta batzuetan ez gaituzte oso ongi zaindu. Hemen, ordea, pozik gelditzen dira beti kirolariak.

■ Kirola ez da mundu erraza emakumeentzat. Oztopo

berezirik aurkitu izan duzu zuk emakume izateagatik?

Patinajearen esparruan beste kirolekin baino oztopo edo zailtasun gutxiago dagoela uste dut. Munduko Txapelketa, adibidez, batera egiten dugu gizon eta emakumezkoak. Badira esaten dutenak gizona baino lasterketak ikusgarriagoak direla, azkarrago ibiltzen direlako, baina, oro har, kirol honetan emakumeek ongi zaintzen gaituztela uste dut. Orain talde profesionalak sortzen hasi dira eta egia da horietan gizona baino gehiago ordaintzen zaiela emakumezkoen baino. Baina patinajearen beste kirolekin baino parekotasun handiagoa dagoela uste dut.

■ Orain arte ez zegoen talde profesionalik patinajearen munduan?

Ez. Baina duela pare bat urte hasi ziren sortzen, eta datorren urtean Nafarroako bi neska izanen gara horietako batean, Araceli Larrea eta biok, eta gurekin izanen da Zaragozako Sheila Herrero ere. Italiako Pro taldean izanen gara. Munduko Txapelketaren ondoren eskaini zidaten aukera, eta onartzea erabaki nuen. Talde horrekin nazioarteko lasterketetan parte hartuko dugu.

■ Urrats garrantzitsua izanen da zure ibilbidean.

Bai, behintzat sartzen hasi



● CRISTINA BERRIAIN

gara. Orain arte, Estatu Batuetako, Frantziako eta Italiako kirolariak zeuden talde profesional horietan, eta orain gu sartzen hasi gara. Egia esan, ez nuen halakorik espero. Patinajea uztekotan ere egon nintzen iaz, baina

Munduko Txapelketan domina lortu ondoren, eta Pro taldeko eskaintza kontuan hartuta, gutxienez beste urte bat jarraitzea erabaki dut.

■ Zergatik utzi nahi zenuen?

Urte asko daramat kirol

honetan, bost urte nituenetik, eta apur bat nekatuta nago. Ez kirola egiteaz, baizik eta hainbeste lasterketetan parte hartzeaz. Asko nekatzen eta erretzen dute. Unibertsitatean ikasten ari naiz, gainera, eta karerra amaitu nahi dut, argi baitaukat patinajeari esker ez naizela biziko.

■ Talde profesionalak ere ez dute kirolek bizitzeko aukera hori ematen?

Ez, gure egoera ez da futbola edo txirrindularitza bezalako kirolek bezalakoa oraindik. Baina beste abantaila batzuk ditugu: urte osoan lasterketak egiten ditugunez, txapelketetara oso sasoi onean iristen baidakara. Nik, hala ere, hemen jarraituko dut entrenatzen, eta Italiako taldearekin lasterketetan baino ez naiz ariko. Ez dut hemendik kanpo bizitza berria hasi nahi.

■ Munduko txapelketa batean

urrezko domina lortzea zer den badakizu. Lorpen hori eskuratzeko bidea oso zaila izan al da?

Zaila izan da, bai, eta, kirol guztietan bezala, hainbat gauza bazter utzi behar izan ditut. Domina bat lortzen duzunean bidean utzitakoa ahaztu egiten zaizu, baina lortzen ez duzunean, gogorra da. Dena den, nik ez dut kirola egiten domina bat lortzeko bakarrik. Gustura entrenatzen naiz, eta maite dut egiten dudana. Hasieran afizioa zen.

■ Nola lortzen du goi mailako kirolari batek txapelketako urduritasunari edo tentsioari aurre egitea?

Lortu nahi duzun dominan pentsatuz.

■ Denboraldi berrirako zer helburu dituzu?

Oraindik ez dut pentsatu. Bi zango-bizkarretan ebakuntza egin berri didate eta orain hasi naiz berriro entrenatzen. Gero ikusiko dugu.

→ Edurne Elizondo

soslaia

la hogeitau urte darama Edurne Elkano barañaindarrak patinatzen; orain 24 ditu, eta bost urte besterik ez zituela jantzi zituen patinak lehen aldiz. Geroztik, ibilbide luze eta garrantzitsua egin du. Munduko azken txapelketan, Txilen, bi domina lortu zituen: urrezkoa amerikar erako erreleboetako 5.000 metroetako lasterketan, eta, zilarrezkoa, berriz, 1.000 metroetan.

Txileko bi dominak Barañaingo Lagunak taldeko patinatzailea zela lortu zituen Edurne Elkanok, Espainiako selekzioarekin. Denboraldi berria, ordea, Iruñeko San Antonio taldearekin egingen du, eta, nazioarteko lasterketetan, Italiako Pro taldearekin ariko da, Araceli Larrea nafarrekin batera.

Patinajea ez da Edurne Elkanoren bizitza betetzen duen gauza bakarra, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Telekomunikazio Ingeniaritza ikasten ari da. Bosgarren mailan dago, baina patinajeak ikasteko denbora asko kentzen dionez, hirugarren eta laugarren mailako zenbait ikasgai gainditzeke ditu oraindik.

NOSKI JATOR PALEOLITIKOAN

Kontsumismo!!
(Gauza zahar hori)

Gurasoak KASU:
Komiki: hontan
hitz-joko bat dago!



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

2000 efektu forala

BI ASTE, 14 EGUN, 336 ORDU BARRU 2000. urtea hasiko da, eta horrekin batera makina bat arazo sor omen daiteke hainbat makinatan. Jarraian, Nafarroan egoera horrek izango dituen ondorioak aztertuko ditugu:

Batetik, UPNko kideei etxeko bideoa izorratu egingen zaie oraindik gaitzetsi ez duten Gerra Zibileko irudiez gozatzeko aukerarik utzi gabe. Horren ordez, Erorien monumentura jo beharko dute irrist egitera Eradio Ezpeletaren gidaritzapean. Bestetik, sozialisten igogailua ez gora ez beheara geldituko da, inongo maniobrarik egiteko gaitasunik gabe, eskuak lotuta jarraituko baitu Lizarbek aurrerantzean ere. Halaber, Lizarra-Garaziko Abiadura Handiko Trenak bere norabidearen orratza berrikusi beharko du zenbait bidaiari ez baditu bidean galdu nahi. Eta trenbide mantsoagoak hartu beharko ditu, Nafarroan batik bat atzean gelditu diren hainbat bizilagun eroso abia daitezzen. Euskal hauteskundeak prestatzen jarraituko dute, antza denez, megabitarteko askorik gabe oraingo.

Horretaz gain, Ansuategi jaunaren ordenagailuak ploff egingen du urte berriaren hasierarekin batera. Beraz, Berta-ren garaitik gaurdaino bertan jasotako izen-abizen, helbide eta bestelako datu osagarri guztiak ezabatu egingen dira guztion onerako. Ospitale-etako zainketa berezien geletako kontrol programak zoratuko ez direlakoan nago, 40 egun luzez espetxeetako ziegetean gose greban egondako presoak ongi senda daitezzen. Bide batez, kartzeletako segurtasun sistemak huts egingen balute, akabo hainbat preso eta senideren mina, eta Mayor ministroaren behin betiko kargugabetzea ospatzeko parada izanen genuke.

ETAr su-etenaren erloju digitala abenduaren 3an gelditu zitzaioala gogoratu du 2000 efektuak; mugarik eta baldintzarik gabeko pila alkalinoa ipini beharko luke behingoz bakearen orratzak martxan has daitezzen berriro.

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Gaur, 20:00etan, Glitter Souls taldea ariko da Gazteriaren Etxean.
- **Lizarra:** Bihar Bi Kate eta Bad F-Line taldeak ikusteko parada izanen da Gaztetxean, 23:00etan.
- **Etxarren:** Bihar, 00:30etan, Leihotikan, Utikan eta Sutan Blai izanen dira pilotalekuan.
- **Ezpeleta:** Bihar Su Ta Garrek bere azken diskoa aurkeztuko du merkatuan.
- **Iruñea:** Dover Madrilgo taldea Anaitasuna kiroldegian ariko da igandean, 21:00etan.

BERTSOLARIAK

- **Iruñe:** Gaur, gaueko bederatzietan, Igor Elortza, Xabier Legarreta eta Josema Leitza izanen dira Iratxo elkarteko bertso-afarian.
- **Sara:** Gaur bertso-afaria dago Amets Arzallus, Xumai Muruz, Miren Artetxe, Ortzi Idoate, Txato, Eneritz Zabaleta, Ellande Alfaro eta Sustrai Kolina bertsolariekin. Gaijartzaille lanetan Jon Sarasua ariko da.
- **Baigorri:** Bihar bertso afaria egingen dute Bittor Elizagoien, Amets Arzallus, Sustrai Kolina, Xabier Silbeira eta Estitxu Fernandezekin.
- **Bera:** Bihar bertso-komik jaialdia izanen da Kultur Etxean, 20:00etatik aurrera. Bidasoako Bertsopaper Lehiaketako sari banaketa egingen da, eta ondotik, Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Xabier Silveirak bertsoak kantatuko dituzte Mattin marrazkilaria egunero EUSKALDUNON EGUNKARIAN argitaratzen dituen komikiekin

urteari errepasoa eginez. Berako bertso eskolako ikasleek bertso musikatuak paratuko dituzte.

ANTZERKIA

- **Burlata:** Astelehenean Xagukumeak haurrendako ikuskizuna eskainiko du Hika taldeak Elizgibela kiroldegian, 15:00etan.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Gaur, 19:30etan, Navarrerria kultur zentroan

Mikel Sorauren historialariak *¿Es posible el progreso?* hitzaldia eskainiko du.

- **Betelu:** Bihar El Salvadorko Cinquero herriko hainbat kide izanen dira Zigadi elkartean, 19:30etatik aurrera, euren herriaren egoeraren berri emateko.
- **Barañain:** Asteartean Juan Carlos Etxegoien Xamar Eguberri inguruko ohituren gainean ariko da Kultur Etxean, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Bera:** Gaurtik urtarrilaren

9ra, Labiaga Ikastolaren 25. urteurrenean, Juan Gorritiren eskultura eta margolanak paratuko dira erakusgai Kultur Etxean, *Aralartik Labiagarat* erakusketan. Egunero egonen da irekia erakusketa, 17:00etatik 20:00etara, eta igandetan 11:00etatik 13:00ak arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Bihar Labrit pilotalekuan Iruñeko 99ko Dantzari Eguna egingen dute, 19:30etatik aurrera.

Kerik gabeko eskola

Iragan asteazkenetik Iruñeko Hizkuntza Eskola kerik gabeko gunea da ofizialki. Herenegun hautsontzi guztiak kendu eta egoera berriaz abisatzen duten eranskailuz josi zuten eskola —irudian horietako handi bat ageri da—. Tabako iragarriak dituzten egunkariak ere desgertaraziko dituztela jakinarazi dute eskolakoek. EEBBak herri eleantzen antzera, Hizkuntza Eskolak ere hasi du tabakismoaren kontrako gerra. Dena dela, oraindik ere bada go makina bat ikasle eta irakasle intsumiso. Nikotinazale horiek eranskailuen abisuari muzin egin (baita barre algara egin ere, irudiko erdiko neskaren gisara) eta pasabideetan erretzen segitu dute. Hori bai, zigorraren beldurra nabaritzen zaie aurpegietan —nahiz eta oraindik inork ez dakien zein izango den— eta hautsa zigarro paketeetan botatzen dute.

